6.

Urkome Sariak

Sariak sei ataletan emango dira:

- Nekazaritza jardueraren sustapena.
- Landa eremuko jarduera ekonomikoaren sustapena.
- Landa eremuetako azpiegitura eta zerbitzuak bermatzea.
- Landa eremuko balioaniztasuna agerian jartzea.
- Iraurgi Berritzenek eta Urola Kostako Udal Elkarteak elkarrekin emango dutena.
- Landa eremuko emakume ekintzailea. SARI IREKIA bozka bidez egingo dena.

Lehenengo lau atalak Urkomeren 2015-2020 Landa Garapen Programan sartuta dauden lau garapen ardatzetan oinarrituta daude. Bosgarrena, eskualdeko elkarteekin egindako elkarlanaren ondorioz emango da (Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkartea). Aurten lehenengo aldiz landa eremuko emakume ekintzaileari saria emango diogu. Aurkezten diren proiektuen artean aukeratuko delarik.

Eta azkenik, partaidetza areagotzeko ahaleginetan, BOZKA bidez emango den sari bat egongo da.

Sariak emateko epaimahai bat eratuko da, erakunde hauetako kideez osatua: Eusko Jaurlaritza,

Iraurgi Berritzen garapen agentzia, HAZI Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Urola Kostako Udal Elkartea eta Urkomeko Zuzendaritza Batzordea.



Oinarriak

- **Aurkezteko Epea:** Urriaren 21etik azaroaren 21era.
- **Aurkezteko lekua:** Urkomeko bulegoan.
- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**
  Bi zatitan banatuta ideia edo egitasmo bakoitzeko. Alde batetik, norberaren datuak, eta bestetik, proiektu edo egitasmoaren informazioa (ikusi Urkomeko webgunean proiektua aurkezteko eredua).
  - **Guztira 6 atal.** Atal bakoitzean:

2.000€

SARI IREKIAK edo bozka bidezkoak, eskualdeko produktuez osaturiko lote bat izango du sari.

- **SARI IREKIA edo bozka bidezkoa**: botoa azaroaren 29tik sarien banaketa egunera arte eman ahal izango da Urkomeren webgunean.
  Proiektu bakoitza aurkezteko, norberak egindako “laburpen txikia” jarriko da (300 karaktere gehienez).
- **Eremua:** Urola Kostan garatzen ari den edo garatuko den proiektu edo ideia izatea.
- **Parte-hartzaileak:** erakunde, elkarte, partikularrak eta sektoreko enpresak.
- **Proiektuak:** 2019-2020 urteetan garatu edo amaituko direnak.

Balorazio irizpideak

- Ideia edo proiektu berritzailea izatea, produktu edo zerbitzu berria sortzea.
- Berrikuntzak sartzea gaur egun dauden produktu edo zerbitzuetan.
- Teknologia berrien aplikazioak aurreikusten dituzten proiektu edo ideiak gehiago baloratuko dira.
- Bideragarritasun ekonomikoa landuta duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- Enplegua sustatzen duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- Berdintasuna aurreikusten duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- Gazteen ideiak gehiago baloratuko dira.
- Kooperazio proiektuak gehiago baloratuko dira.
- 2019-2020an gauzatzea aurrikusten duten proiektuak eta hori bermatzen dutenak gehiago baloratuko dira.

Epaimahaiaren erantzuna

- Epaimahaiak sariak emateko gaitasun osoa du, eta adostasunez hartuko ditu erabakiak irizpideen arabera.
- Parte-hartzaileei sari banaketara gonbidatuko zaie, eta ondoren, irabazleak **www.urkome.eus** webgunean jarriko dira.
- Epaimahaiak atal bakoitzerako dagoen saria nola banatu erabakitzeko eskumena izango du, bai eta sari hori eman gabe uztekoa ere, horretarako proiektu egokirik ez dagoela iritziz gero.

Parte-hartzaileen betebeharrak

- Sari-lehiaketaren oinarriak onartzea.
- Ideia edo proiektua behar den bezala aurkeztea.
- Datuen fidagarritasuna bermatzea.

Antolakuntzaren betebeharrak

- Partaideek aurkeztutako proiektu edo ideiak isilpean / babesturik mantentzea.

Urkome Sariak

URKOME
UROLA KOSTAKO LANDA GARAPENEKO ELKARTEA

Enparan, 1-2.
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.:943 81 65 00 - Fax: 943 15 73 85
urkome@urkome.eus
www.urkome.eus

Quod Sail

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA
LANDAOLA GIPUZKOAKO LANDA GARAPEN ELKARTEEN FEDERAZIOA
hazi
iraurgi Berritzen
UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA